

ZENBAT BURU
Martin Dominguez

ERREPORTAJEA
Karakate Elkarteak
Bernabe Mugica
omendukoa du

BARREN

1999ko irailaren 24a
VII. urtea - 291. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




BERBETAN

Roberto Garda
margolaria

KULTURA

"Dama eta kardinala "
komedia
Herriko Antzokian



Karakate Mikologi Elkartea:
25 urtez perretxikuzale
111 ibartarren bilgunea

San firijeficziak

Asteburuko menua



*
1 efausieyi Zaserria
San Migel gaina z/g - Tel. 943 74 31 02

Ondo pasau jaixak!

Antonio Arrillaga, 14
(Santa Ana 22 parean)
TEL 943 74 30 08

ARRILAGA

- ▶ ENMARKAZIOAK
- ▶ NEURRIRA EGINDAKO
ISPILUAK
- ▶ LAN GRAFIKOAK:
irudiak,
grabatuak,
akuarelak,
oleoak etab.
- ▶ ALTZARI AUXILIARRAK
- ▶ OPARIAK

Ireki berria!



MARTIN DOMINGUEZ

||olurio txiki bE2 eakaraE

Soldaduzka bukatzean euskara ikasteko garaia zela erabaki nuen. Bizi osoan Euskal Herrian eta euskaraz ez jakiteak noizean behin lotsa ematen zidan.

Hizkuntza bat ikasteko gogoia eduki behar da, eta gogoia bezain inportantea euskaltegiak dira. Baina zein? **HABE** edo **AEK**. Ez noa hobea zein den esatera, bakoitza bere erara aritzen da, baina dirudienez **HABEn**, nire gusturako gramatika gehiagi ikasten da eta nik ez nuen idazlea izaterik nahi, hitz egitea bakarrik baizik.

AEKra hurbildu nintzen, atea zabalik zegoen, egia esan ikasteko beti dago zabalik. Amaia aurkitu nuen, bera irakaslea da eta berarekin berba egiten hasi nintzen, erderaz, noski. Amaiak esan zidanez, euren metodoan behar den gramatika ikasten da, baina ez gehiago, inportantzia gehiago ematen diete kalean gertatzen diren gauzei. Ogia erosteari, zerbait hartzeari edo Udaletxean zerbait eskatzeari, etabarri. Nire gustuko metodoa zen eta denbora gehiago galdu gabe apuntatu egin nintzen.

Jadanik barruan nengoan, baina noraino iristea nahi nuen demostratu behar nuen, ea euskara ikasteko gai izango nintzen edo denbora pasatzera bakarrik nindoan. Ez nuen hasi eta berehala lagatzerik edo beste batzuek bezala gutxitan joaterik nahi, nire asmoa beste bat zen. Nik jarri nuen helburua, eta nire aldetik dena ipiniko nuen lortu arte. Hitz hauen bitartez euskaltegian zaudetenok edo ikasturte berri bat hastear dagoenez, hasiko zaretonok animatu nahi zaituztet, merezi du-eta.

Lau urtetan joan nintzen Plaza Txikira

eta egia esan ez ziren batere gogorrak izan.

Lehenengo bi urteetan denbora nahikoa neukan, hurrengo bietan ez hainbeste, baina **AEK**n lanak eskatzen nituen etxean egiteko. Azkenean lortu nuen kalean euskara erabiltzeak ematen zidan lotsa baztertzea.

Orain ahal dudanean euskaraz hitz egiten dut, nirea ez da euskara landua, batzuetan trabatu egiten naiz eta ez ditut pentsatzen dudana esateko hitzak aurkitzen. Hau ez da txarra, gartzelaniaz ere gauza bera gertatzen zait.

Nire istorioa kontatzean bi mezu bidali nahi ditut. Bata euskaldunentzat, euskara zaila dela jakin behar duzue. Guk kalean daukagu euskaltegirik onena eta euskaltegi horretan zuek zarete gure irakasleak, gurekiko pazientzia piska bat izan dezazuen eskatu nahi nizueke. Beste mezua euskaraz ez dakizuenontzat da (ea norbaitek artikulua itzultzen dizuen). Ikasten baldin bazaudete, animo eta segi aurrera, ikusiko duzue nola emaitzak laster helduko diren. Oraindik ez baduzue ikasteko pausorik eman, esan behar dizuet ez dela gauza bera sentitzen hemengoa izaten soilik edo hemengoa izateaz gain euskalduna izaten eta euskara erabiltzen (hizkuntza bat erabiltzen ez bada, galdu egiten baita).

Bukatzeo **AEK**ko jendeari (Amaiari, Alfonsori eta izaskuni) nirekin lortu zutena eskertu nahi diet. Handik pasatu ondoren nire barruan benetan betetzen nauen zerbait dago. Zuek eguneroko klaseak eman ondoren lasai joan zaitezketete etxera, ondo egindako lanak ematen duen pozez.

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak



BaRREN



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

71 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topaguneal.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	I3ea Ansola
ADNUNISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, ton Gurrutxaga, KOKOE, imanal Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Ihigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Malte Valbajo, Lourdes Zubiaurre,
AZALEKO ESALDIA	Gofzon Garalen liLfrUtik
BANAKETA AROUNDUNA	Imanol Larrañaga
INpRimkrEoiffl.	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 aie
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*apigizarte-ekintza
obra social*

4 DANOBAT

SNGOITI
GRUPO DANOBAT

Arantxa,

A izan, hau Arantxa baino
.L .gehiago Arantza dela uste di-
nagu, ez? Ezer esan gabe joate hau ez
dun serioa. Eta osteguneko zer?
Orain Zinemaldira beharrean Olasora
joan beharko gaitun hirekin egon nahi
badinagu hire taizortziak ospatzea.

Ez dakin nola "koketa" eta "pri-
mer" izan, zahartzeak ez zinala grazi-
rik egiten? Urtea ondo aurreratua ze-
nean, "tapa"! Oraindik ez ginela inor
joan? "Dale"! Buena, guk ere ikasiko
dinagu alai, maitakor, adiskide, bake-
tsu, ama, emazte, senide... antzeko ze-
ozer izaten, hire antza izan nahi baiti-
nagu.

Zoriontsu gaitun hi maite hindute-
nek gu ere maite laituztelako. Ikusten
dun? Lortu hunan maitasun lokarria
luzatzea.

Pozik gaitun hirekin harremanean
jaso dinagunarengatik. Victor topatze-
aren ondorenak. Esker mila arantza-
dun larrosa eder hau hona ekartzeaga-
tik.

Non habil orain"? Arrazoi dun, jen-
de asko zegon lokarri horren beharre-
an.

"Otia"! Ha!a ere ez dun serioa.

Hire lokarriko lagunak.

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek larreza: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

GALDERAK

- Gazte koadrila batek jakin nahi du **Pedro Muguruza ikastetxe zaharrean saskibaloian eta futbolean jokatze**ko saskiak eta porteriak, eta ping-pong mahai bat jartzeko asmorik ba al duen Udalak.

Udaleko arduradunen esanetan, "Udalean idatzizko eskaerarik jasotzen ez dugun bitartean ezin dugu ezer ere egin. Eskaera jaso ondoren, az terketa bat egingo genuke eta erabakia hartu. Dena dela, duela 5 urte saskiak eta porteria batzuk jarri genituen Pedro Muguruza-ko ikastetxe zaharrean, eta 3 hilabete besterik ez zuten zutik iraun".

KEXAK

- Emakume batek deitu digu Merkatu Plazan, arrandegiak dauden solairuan dagoen zikinkeria salatze-ko. "Abuztu **osoan pilatu den zikinkeria garbitze-ke dago. Badirudi Merkatu Plazako arduraduna jubilatuta denetik, inork ez duela ardura hori hartu. Lotsagarria da zer nolako zikinkeria eta kiratsa dagoen.**"
- Ermuaranbide kaleko bizilagun batek bere kaleko obrak direla-eta, hautsak eta zikinak sortarazten dizkion kalteak salatu nahi ditu. "Lau **hilabete pasa dia babes ofizialeko etxiak itxen hasi zianetik, eta inork ez dau mangerarik pasau behin ere. Ulertzen dot obrek zikina ateratzia, baina neurri batetik aurrera ezin dia jasan hautsak sortzen ditxuan trabak**".
- Herritar batek honako kexa hau azaldu nahi du: "**Giza Eskubideen parkean dagoen iturria erabat hondatuta dago, tutuak izorratuta daude eta ur jarioak nonnahi.** Inguruan putzu asko sortzen dira, eta haurrekin atsedean hartzera joaten garenok ahalegin handiak egin behar ditugu seme-alabak etxera melamela eginda hel ez daitezen".

BAI ESAN?



Miren Isasi

AFAGIko bolondresa

Asteartean, hilaren 21ean, Alzheimer gaixotasunaren Nazioarteko Eguna izan zen. Gaixotasun hau nahiko ezezaguna da jende askorentzat, eta hotri buruz zerbait jakin nahian, AFAGIra, Gipuzkoako Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoen Elkartera jo dugu. Taldeko bolondresa den Miren Isasi gazte elgoibartarrarekin hitz egin dugu, eta berak eman dizkigu gaixotasun honi buruzko argibideak.

- Zer da alzheimer gaixotasuna? Denborarekin areagotzen den dementzia da. Gizakiaren garunean du eragina eta sintomarik garrantzitsuena oroimenaren galera da. Gainera, alzheimer gaixotasuna duten pertsonak denboran eta espazioan galduta sentitzen dira. Hori dela-eta, ohizko gauzak nola egin behar diren gogoratzeko zailtasunak izaten dituzte. Baita hitzak aurkitzeko, pentsamenduak adierazteko edo leku jakin batera joateko ere. Gaixotasuna azken fasera iristen ari den heinean, gaixoei laguntzarik gabe ezin izaten dute ezer egin.

- Zein pertsonari eragiten dio? - Zahartzaroen agertzen den gaixotasuna da eta 75 eta 90 urte bitarteko pertsonen eragiten die batez ere. Baina, ikerketen arabera, 50 eta 60 urte bitarteko pertsonen ere izan dezakete.

- Nola jakin daiteke norbaitek alzheimer duela? - Gaixotasuna piskanaka agertzen denez, zaila da hasieratik gaixoak identifikatzea. Hala ere, sintorna ohizkoenak hauek dira: oroimenaren galera, gauzak izendatzeko zailtasuna, nortasuna eta hizkuntza nahastea, denboraren eta espazioaren galera, norbere gorputza ez zaintzea, gaua eta eguna nahastea, kontzentrazioa eta iniziatiba galtzea, beraien afizioekiko interesik eza, depresioa eta agresibitatea.

- Nola egin dakioke aurre gaixotasunari? - Oraindik ez dago alzheimerren aurkako erremediorik, baina gaur egun bi tratamendu mota erabiltzen dira: farmakologikoa, gaixotasunaren garapena moteltzen duena eta bestea estimulazio bidez egiten dena: oroimena, mugimenduak, abstrakzioa... landuz.

- Zein zerbitzu eskaintzen ditu AFAGI? AFAGIren lana familiei eta gaixoei laguntzea da. Senitartekoentzako informazioa, ahoikularitza sikosoziala, autolaguntza taldeak, ikastaroak, ordu libreak, gaixotasunari buruzko hitzaldiak eta argitalpenak... bideratzen dituzte. AFAGIren barruan hainbat bolondres gaude eta gure lanak gaixoak etxean entretenitzea, gaixoei kalean zein etxean laguntzea, familiakoak orientatzea eta beraiei entzutea eta denbora libre ematea dira.



RAIKS
KAFETEGIA
943 74 42 65



JOSE_{jp/fdafi,ai}
(rxenia)
-Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, mokat, sintasola, kortxoak, etab, jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezka • Tel: 943 74 12 55 • Mobilak: 629 44 23 14

MATE MIKOLoa ELITEMEN

w7bcw ~

Karakaft Elkorteak 25 urte beie dilu aurfen. Hori dela-cia, zenbalt ekinlza berai antoldu difuzte. Itrteroko zllari hulsik egin gabe, igandeon, hilaren 26an, Deba rroko Hourrenlzalio XXV, Perrelxiko LeNakela izango da Plaza I landian, Bernabe Nugica, Elkarteko ohorezko bazkidea omenduko dute bertan. Elkarlearl buruz jakin beharreko zenbail gauza alpaluko dilugu ondorengo lerro haelon,



• Karakate Elkarateo duela 25 urte sortu zen. Estatutoak osatu ondoren, garoiko lege baten arabera, elkarte gastronomiko guztiek ekintza bat antolatu beharra zeukaten. Bazkide batzuk oso perretxikozaleak ziren, eta antzeko beste elkarterik ez zegoenez, Karakate Mikologi Elkarte sortu zuten. Gaur egun 75 bazkide doude.



• Hasieratik Bailarako Perretxiko Lehiaketa antolatzen hasi ziren. Txapelketaz arduratzeko batzorde bat eratu zuten eta Bernabe Mugica perretxikotan adaua denez, raguntza eskatu zioten. Elkorteko ohorezko bozkide izendatu zuten.

• 15 urtetik beherako haurrentzako txapelketa izatea erabaki zuten. Aranzadi Zientzi Elkarteko gomendioz hartu zuten erabakia, beste herrietako txapelketa askotan eztabaidak eta istiluok izan zituztela-eta. 1. zon ere, oso zaila izan daiteke perretxiko bat zein motatakoa den erabakitzea bi orduetan bakarrik. Askotan mikroskopioa beharko litzateke.

• Perretxiko Txapelketaren helburu nagusia gaztetxoek perretxikoak bereizten ikastea da.

• Lehenengo txapelketetan genero etaespezie guztiak batera aurkezten ziren.

Baina filosofia horrekin gazteek gutxi ikasten zutela ohartu ziren Karakatekoak. Beraz, perretxikoak ezagutzeko oinarri batzuk irakatsi beharra zegoelo pentsatu zuten. Partehartzaileek morfologian edo itxuran, usainean eta ukimenean arreta jar dezaten saiatzten dira, perretxikoak sailkatzeko eta antzekoak diren perretxiko onak eta txarrak bereizten jakiteko.


A Karakatekoek Morcheba izeneko perretxikua aukeratu zuten sinbolo moduan. Aukeraketa honen atzean istorio kurioso bat ezkututzen da: San Roke auzoan elkarte erakitzeko lanetan ari zirenean, langile batek, harri artean perretxiko arraro bat aurkitu zuela aipatu zion Bernaberi. Bertara joan eta Morcheba bat zela ohartu zen. Formolezko pote batean sartu eta Aranzadira eraman zuen. Gaur egun, Elkartean bertan gordetzen dute orain dela 25 urte aurkitutako perretxikoa.

• Karakateko bazkide batzuek azaldu digutenez, "perretxikozaliak baino gehixao 'biziozuak' gera batzuek. Izugarri gustatzen jaku mendira jun eta perretxikuak batzia eta baitxa aztertzea ere, beste batzuri jattia gehixao gustau arren".



Bernabe Mugica: "Lehen baso gehixao eta perretxikozale gilxiao zauan".

Bernaee Aranzadiko kidee da ela perrefixikolan jekituue. Ouk bemrekla berbe egiR dugu. Perrelxkozaleek isilpean gorderzen diluzten leku eta sekrein kuttunenek zein diren ezegulzako asmoz, Bernubek, 40 urteko zafelasunak ematen dion espedenlzien oinarrituz, perretxikod buruzko keinbal gauza konlatu dizkigu. Adi berez!



BERNABE MUGICA
Perretxikoetan aditua

Nola sortu zitzaizun mikologiarekiko zaletasuna?

Oin dala 40 urte inguru Jesus Egaña nere lagunakin juten nitzan mendira perretxikotara. Harek ezautzen zitxuan eta ni beti galdezka, hau ona ala txarra da?, Jesusek baietz edo ezetz erantzuten zaban, baina nik zergatik zian onak edo txarrak jakitzeko kuriosidadia nakan. Perretxikoei buruzko liburu txiki bat heldu zan nere eskuetara, eta han ikusi naban botanikamente ezautu bihar dala perretxikuak, morfologia edo itxuria aztertuz.

1 Noiztik zara Aranzadiko Elkarteko kidea?

Duela 30 urte ingurutik. Mikologi saila sortu eta urtebetera sartu nitzan. Une hontan saileko kiderik zaharrena naiz edadez eta bigarrena aitzinotasunez.

II Zer egiten duzue Aranzadiko kideok?

Mikologia sailekuak astelehenero batzen gera. Asteburuan bildutako perretxikuak eruan eta ezezagun bat topau ezker, mikroskopivakin aztertzen dou. Danon artian eztabaidau, identifikau eta sailkatu itxen dou. Gero sikau eta gorde itxen dia gela berezi bation. Aranzadin helburua Euskal Herriko perreixikuen salkapena ibda da. Bestalde, bateonbat intoxikatzen bada, ospitaletik Aranzadira deitzen dabe, zein perretxiko jan daban jakitzeko, tratamentua ere diferentia da-eta. Batzuetan estomagua garbibw bihar da, beste batzuetan indiziva jarri edo kasurik txarrenian, pozoiña nerbio sisteman sartu bada, itxoitia eta erreztzia besterik ez dao.

Ik Noiztik laguntzen diezu Karakatekoei lehiaketan?

lehenengo urtetik, duela 25 urtetik. Aurretik lehiaketa askotan ibilia nitzanez, laguntzeko eskatu ziaten. Araudixa ere sortu naban. Egunian bertan, Aranzadi ordezkatzan eoten naiz mahai didaktiko bation eta ez epaile moduan. Perreixiko onak eta txarrak sailkatzen ditzugu. Jendiak zergatik diazen batzuk onak eta bestiak txarrak bereizten ikasteko itxen dou. Elgoibarko gaztetxuek ezaguera

haundixa dakela konturau naiz, afizio haundixa dao. Kantidadia baino gehixao kalidadia saritzen dou, presentaziva batez ere.

1 Zenbat perretxiku mota ezagutzen dira? Eta zuk zenbat ezagutzen dituzu?

la 3.000 espezie dao sailkatuta. Gutxi gorabe-

hera hoietatik 300 bat ezagutzen ditzut nik. Izan ere, Euskal Herrixa oso perretxiku leku ona da. Europako lekurik onenatarikua; euri asko itxen dau, eta tenperatura ere egokixa da, ez hotzegi ez beruegi.

1 Lehen perretxiko gehiago zeudela entzuten da. Egia al da?

Bai. lehen baso gehixao eta perretxikozale gitxiao zauan. Oin, berriz, bestera da. Lizentziarik edo antzerakorik ez danez bihar, donak perretxikotara juten dia. Baina inork batzen ez ditzun perretxikoak, hau da, laten ez dianak ere, gero eta gitxiao dao. Aranzadin fenomeno honen arrazoiak aztertzen gabiz.

"Euskal Herria Europako perretxiko leku ORCIdrikOd da. la 3.000 espezie dao sailkatuta"

1 Beharrezkoa al da horrenbeste sekretismo perretxiko lekuen inguruan?

Ulertzen dot udaberriko zizak nun aurkitxu dian ez esatia, beti leku berdian urtetzen dia eta oso zailak dia topatzeko. lagunari esanez gero, harek beste biri ematen dio lekuan berri eta azkenerako ez da perrelxikaririk geratzen. Nafarrua aldian perretxikuz betetako pagadi bat dauala esan nahi ez izatia, berriz, ez dot ulertzen.

1 Perretxiko kaltegarri asko al dago Euskal Herrian?

Onak baino askoz gutxio. Horregatik, perretxikoak ezautu nahi ditzuanak txarrak ezautzetik hasi biharko feuke. Daozen txar apurrik bereizten ikasi ondoren, eongo da astirik jateko onenak zein dian ikasteko.

II Zein da perretxikotarako eguraHi onena?

Gabeko ihintza bezalakorik ez dao. Hego haiziak, berriz, ez da perretxikorik aterclizen. Inguruniari dagokionez, perretxiku klase bakoizak bere ezaugarri propixuak ditxu.



PE RRETXI KOZALE E NTZAKO AHOLKUAK

- 11 Iraila, urria eta azaroa dira hilabetelik egokienak.
- 11 Eguraldi hezea eta euritsua behar dute perretxikoek.
- 11 Plastikozko poltsak baztertu. Perretxikoak berotu egiten dira eta fermentatzen hasi.
- 11 Usain txarra edo harrak badituzte, ez bildu, dauden lekuan utzi, beste edozein jaki modukoak dira-eta.
- 11 Mahairako perretxikorik goxoenetakoa *Amanita Coesarea* da, Hala ere osasunarentzat kaltegarrienak ere, Amanitak dira. Oso antze-koak direnez, kontuz!
- 11 Lurretik osorik ateraz gero, seguruenik, datorren urtera arte ez da berriz perretxikorik haziko.



- 11 Ez fidatu liburu-etako argazkiez bakarrik. Testuak irakurri eta kasu egin. Argazkiek ez dute usainari, ukimenari edo beste hainbat beharrezko daturi buruzko informaziorik ematen.
- iPerreixiko zuriak eta urdinak osorik atera lurretik.

Amanita kaltegarria den ala ez jakiteko modurik fidagarriena da. Lur azpian bulba edo poltsa bat baldin badaukate, Amanita kaltegarriak dira.

11 Perretxikoet ez beldurrik izan, errespetua baizik. Perreixiko kaltegarriak gutxi dira.

11 Laminak dituzten perretxikoen artean oso onak eta oso txarrak daude.

11 Orratzak dituzten perretxiko txarrak ez dago. Euskal Herrian intoxicazio handienak sortzen cluen perretxikua, *Entolomea Libiciun* da. Kontuz!

langileentzako prestakuntza ikastaroak 99/2000

• Makino Erremintaren Institutua
San Rake auzoo, 1
20870 Elgoibar

■ Tel.: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
E-posta: imh@imh.es

• Orduetgia:
8:00etatik 13:00tara eta
14:30etatik 17:30tara.



DISEINUA

Autocad (99-10-4)	40 ordu
Autocad (99-11-2)	40 ordu
Autocad + Genius (99-10-4)	30 ordu
Multzo mekanikoen interp. (99-10-4) ..	25 ordu
Fabrikazio-planoen interp. (99-11-2) ..	25 ordu
Solid edge II (99-11-29)	30 ordu

INFORMATIKA

Web diseinua (99-10-27)	14 ordu
Intemet (99-10-18)	14 ordu
Internet (99-11-8)	14 ordu
C lengoala (99-11-8)	30 ordu
Ms acces (99-11-8)	30 ordu
Ms excel (99-10-4)	30 ordu
Ms excel (99-11-8)	30 ordu
Ms excel aurreratua (99-10-13)	16 ordu
Ms word (99-10-13)	30 ordu
Ms word (99-11-29)	30 ordu
Ms word aurreratua (99-09-27)	16 ordu
Ms word aurreratua (99-12-13)	16 ordu
Powerpoint (99-11-16)	20 ordu
Sareak eta komunikazioa (99-11-8) ..	14 ordu
Sql server (99-12-9)	20 ordu
Visual basic (99-10-4)	40 ordu
Windows 95 (99-10-18)	20 ordu
Windows 95 (99-11-15)	20 ordu

MANTENIMENDUA eta MONTAJEA

Aut. programagarriak (step 5) (99-10-18) . .	40 ordu
Aut. programagarriak (step 5) (99-10-13) . .	30 ordu
Eektrizitatea (99-10-4)	45 ordu
Elektrohidraulika (99-11-8)	30 ordu
Hidraulika (99-10-4)	36 ordu
Hidraulika (99-11-3)	36 ordu
Pneumatika eta etekropneumatike (99-10-18) .	40 ordu
Pneumatika eta elektropneumatika (99-11-22) .	40 ordu
Step 7 (99-11-8)	40 ordu
Step 7 (trantsizioa) (99-12-13)	10 ordu

FABRIKAZIOA

Hari bidezko elektrohidadura (99-11-2) . .	40 ordu
Sarpen bidezko elektrohidadura (99-11-2) ..	40 ordu
F CNC I (99-11-22)	40 ordu
F CNC II (99-10-4)	45 ordu
Deformazio bidezko fabrikazioa (99-11-2) 40	ordua
Fresadora konbentzionaleko mekan. (99-10-18) ..	60 ordu
Tomu konbentzionaleko mekan. (99-10-18) ..	60 ordu
SIEMENS 840 D (99-10-25)	40 ordu
T CNC (99-11-22)	40 ordu
T CNC 111 (99-10-4)	45 ordu

ASTEARTEAN GOIZEKO 9:00etatik ARRATSALDEKO
19:00etara URA MOZTU ZUTEN ELGOIBARKO ER01GUNEAN

101 !nlitia erabli 117,)in ur mozknid



J. JOSE BASTARR1KA
42 urte, gozogilea

Obradorean nahiko ondo moldatu ginen, 9:00etarako lan gehiena eginda geneukalako. Baina ur mozketa gauean izan beharko litzateke herritarrak ez kaltetzeko.



J.MARIA ETHEBERRIA
61 urte, langilea

Bai, tailarrian kalte in digu. Egun guztian komunak ezin izan ditzugu erabili. Balde batzuk urakin bete eta eskuak garbitzeko horrekin moldau gera.



MANUEL GOY
42 urte, montadorea

Ez, denboraz abisatu ziguten eta bainera bete genuen garbiketak egiteko. Hala ere, horrelakoetan igertzen da zein beharrezkoa den ura.



GERON1MA TERCERO
54 urte, etxeoandrea

Ez zidan kalte handirik sortu. Bi baldekada ur eta botila batzuk bete nituen ura moztu aurretik. Egun bakarra izan zenez, ongi moldatu nintzen asteartean.



MARI CARMEN AZPIAZU
56 urte, etxeoandrea

Ez, egun bat ur barik egotiarren ez da ezer pasatzen. Ura danon onerako den zezozer eitzeko kendu badabe, ondo beintxentzen jata.



M.CRUIZ FDEZ-CAMPINUN
46 urte, etxeoandrea

Betiko arazoak izan genituen, baina beste irtenbiderik ezean egun bat urrik gabe pasatu behar. Nik bainera bete nuen, eta edateko botilako ura erosi.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZ1A ASTEBETEAN, AZTERKETARIK GABE!

efam admitut aii.torktipt teinthn **16 leteetelio.**

Zatoz informazio eske

ARRANAGA
A U T OESKOL
Tel: 943 74 10 11

Miopia

Excimer laser

Lasik

Jose Ignacio Recalde Yurrita

Mediku Ofralmologoa

Laserrarekin interbentzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1 • EIBAR Tel.943 20 18 44

Unialco supe reeplunia anonaugen amariellgan lulto dute Hasieran 61 langile arituko dira merkatal zentruan

Lerungo industrialdean eraikitzen ari diren *Unialcoren* supermerkatuak azaroaren azken egunetan irekiko dituzte. Netto izena edukiko du eta hasieran 61 langile arituko dira bertan.

Supermerkatuan lanean jardungo duten langileen aukeraketa egiten ari dira egunotan supenuerkatuko arduradunak. Kajarako 15 pertsona, materiala apaletan jartzeko beste 15 langile, harategirako 8, fruteriarako 4 eta arraindegirako beste 4, hartuko dituzte. Bestalde, bi langilek arropen eta bazarraren ardura izango dute eta gainontzeko bostak ikasten arituko dira.

Jakin dugunez, bi arduradunek egun osoko lana izango dute, 23 langilek astean 40 orduz egingo dute lan, beste 20 langilek hogeitau orduko kontratua izango dute eta hiruk 34 ordukoa. Gainontzeko langileek jende asko dagoen egunetan egingo dute lan, edo bajan dauden langileak ordezkatuko dituzte.

Obrak martxa onean

Azaroaren erdirako supermerkatua bukatuta egongo dela uste dute arduradunek. Hala ere, lanak amaitu eta jendearentzako ateak ireki artean egun batzuk pasatuko



Supermerkatuak 2.000 m²ko saltokia izango du eta bertan kafetegia eta beste saltoki txiki batzuk egongo dira.

dira. Lokalak 2.000 m²ko saltokia izango du eta bertan kafetegia eta beste denda txiki batzuk egongo dira. Kafetegiak 183m² edukiko ditu eta jadanik badakite nor arduratuko den bertako lanekin. Baina *Unialcoko* promotoreek zenbait arazo dituzte beste lokalak nahi dituen jendea aurkitzeko. Lokalik txikiak 28m² ditu eta hilean 100.000 pezetako errenta dauka, handiena berriz 38 m²koa da eta hilero ordaindu beharreko

errenta 154.000 pezeta dira.

Unialcoko arduradunen ustez, bertan bidaia agintziak, belardendak, prentsa saltzeko dendak, loradendak, giltzen kopiak egiteko dendak, kajero automatikoak, ile-apaindegiak... ipin daitezke besteak beste.

Supermerkatuak berak hainbat sail izango ditu drogeria eta garbiketarako produktuen saila esaterako. Gainera, musika, automobiletarako osagarriak, brikolajerako eta etxerako tresnak ere salduko dituzte.

Beraz, aurki Elgoibarren inoiz izan den merkatal zentruak handiena zabalik izango da, erosketak eroso egin ahal izateko.

uAlaserslo prna benti hat eralfrilo dule SantE HIPOBI Etxeberria funerariak tanatorioa jarriko du obrak amaitzen dituztenean

Ftxeberria funeraria alboan dagoen orubea laster estali egingo dute bertan parke bat eraikitzeko. Gainera, aisialdi gunearen azpian autoentzako aparkaleku pribatua egingo dute, eta gaur egun Etxeberria Funerariak erabihiz dituen lurretan lau solairuko edifizio bat ere eraikiko dute.

Urte askotan 14 eta 16 portalen arteko terenoak hutsik izan dira, baina badirudi aurki erabilera kortkretua izango dutela, Udalak aisialdi gunea eta etxebizitza.k eraikitzeko proiektuari baietzkoa eman baitio.

Proiektuan azaltzen denaren arabera, orubea estaltzeaz gain

azerak ere eraikiko dituzte. Bata paretetik Etxeberria familiaren etxebizitzara joango da eta bestea AIdapa tabernara.

Funerariak berak ere hainbat berrikuntza izango ditu. Gaur egun edifizioak sotanoa, beheko solairua (biltegia eta aroztegia daude bertan) eta solairu bakarreko etxebizitza ditu. Baina obren ostean sotanoaz eta beheko solairuaz gain etxebizitzetarako beste lau solairu izango ditu.

Oraindik ez dakite hiru solairu horiek egiteko oraingo estruktura mantenduko den ala guztia berriz egiteko edifizioa botako duten. Edifizio berriak parkera begira aterpea

izango du eta eraikuntzaren oinarria handitu egingo dute funerariako almagazaren pareko azerara arte.

Tanatorioa

Obra hauek amaitzen dituztenean tanatorioa jarriko dute martxan Elgoibarren. Etxeberria funerariak herritarrei zerbitzu hau eskaini nahi die, gero eta leku gehiagotan jartzeko ari baitira. Gaur egun biltegia eta almazena dauden lekuan jarriko dute tanatorioa edifizioaren beheko solairuan, hain zuzen ere. Honela, senitartekoek modu erosoagoan egin ahal izango dute hildakoen aldeko belatorioa.



45 gazte elgoibartarrek hartu zuten sendotza joan zen igandean

Joan den igandean, irailaren 19an, Elgoibarko 45 neska-mutilek sendotza hartu zuten San Bartolome Parrokian. Meza eguerdiko 2:00etan izan zen Imanol Aldaregia, Elizbarrutiko idazkariaren ardurapean. Elizkizunean Jesusen aurrean fede katolikoa sendotu zuten neska-mutilek, beraien sinesmena konfirmatuz. Gazteak larunbatero bildu dira kristau fedearan inguruko gaiak lantzeko. Elizkizuna ongi atera zela adierazi digute eta eguraldi ona egin zuenez modu ederrean ospatzeko aukera izan zuten. Argazkian, sendotza hartu zuten gazteak agertzen dira.

• Kilometroak 98ra joateko autobusak

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, Elgoibarko Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzaz, autobusak antolatu ditu datorren urriaren 3an, igandean, Erreterian izango den Kilometroak 99 ikastolen aldeko jaira joateko. Autobuserako izena emateko 943 74 16 26 telefonora dei dezakezue edo bestela elkarteak Ubitarte 4an duen lokalera joan eta bertan egin daiteke izen-ematea. Ordaindu beharreko prezioa 1.000 pezeta dira eta elkarteko bazkideek, berriz, 700 pezeta.

• Egunkaria irakurtzeko ikastaroa AEK euskaltegian

Elgoibarko AEK euskaltegiak *Egunkariarekin* batera euskaraz irakurtzen trebatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaro honetan izena emanez gero, 3 hilabetetan Euskaldunon Egunkaria doan jasotzeko aukera izango da. Ikastaroa euskaldunei zuzendua dago batez ere. Argibide gehiago nahi izanez gero AEK euskaltegiak Plaza Txikian duen egoitzara hurbildu zaitezke edo 943 74 13 32 zenbakira deituta ere informazioa jaso daiteke.

Incuncu[uft USi

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

anBartolome, 6 / B. Ezenarro, tr 943 74 33 92

- Kontabilitate

Kalamua, 12

ELGOIBAR

- Lan

Tel-Faxa:

943 74 18 91

- Fiskal

URKID1

AHOLKULARITZA

ITT ERCOS ASEGUROAK

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZI(C)A

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

—San Roke, 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



ort440•1144 nr. cobp.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



**KAROBI
TABERNA**



111 **IMIMOOM**

Errosario, 30

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAXA

Elgoibarka Udaleko E ordezkari izan ziren Euskal Herriko Hautetsien Biltzarrean

PNVtik alkatea, EHko 4 zinegotziak eta EAko 1 egon ziren Bilboko batzarrean



Guillermo Garate



Asier Zengotita



Izaskun Arozena



Jose Luis Ansola



Bitxori Guenaga



Ignazio Mugerza

Joan zen larunbatean, hilaren 18an, Euskal Herriko Hautetsien Biltzarra izan zen Bilbon. Elgoibarko Udaletik guztira 6 ordezkari joan ziren. Guillermo Garate alkatea PNV-EAJ alderditik, Asier Zengotita, Izaskun Arozena, Jose Luis Ansola eta Bitxori Guenaga EHtik eta EAko Ignazio Mugerza, hain zuzen ere.

Larunbatean Bilboko Euskalduna jauregian egin zuten biltzarrean guztira Euskal Herriko 2.000 hautetsi inguru bildu ziren, horietatik 6 elgoibartarrak. **Honela, EAJ-PNVko, EHko eta EAko ordezkariak egitasmoarekin**

bat datozela erakutsi zuten. Gu hiru alderdi hauetako ordezkariekin izan gara bilaren ostean beraien iritzia jasotzeko. Guillermo Garatek, alkateak balorazio positiboa egin du *Udalbiltzarren* osaketaren inguruan. "Oso praktikoa da erakunde hau. Udal erantzukizuna dugunok guztioi eragiten ditugun arazoak elkarrekin azter clitzakegulako. Gainera, eragin politikoa ere badu. Euskal Herriko erakundeen aniztasuna kontutan izanik, euskaldunok banatzen tuzten muga artifizialak edo formalak gainditzeko instituzio bat sortzea oso halia-garria izan daiteke". EHko Asier Zengotitaren esane-

tan, "Biltzar honek herrien arteko komunikazioa hobetzeko balio du, dudarik gabe, eta eraikuntza nazionalerako beharrezko lan tresna da gainera. Euskal Herrian lehen aldiz bildu gara herri guztietako edo gehienetako ordezkariak eta biltzarrek Euskal Herri osoko diagnostia egiteko balio duela uste dugu. Bileran gauza askori buruz hitz egin zen, eta gero, bakoitzak bere ondorioak aterako ditu". Ignazio Mugerzak, EAko zinegotziak oso positibotzat jo du larunbateko biltzarra. "Alderdi ezberdinetako hainbeste jende leku berean bilduta ikustea oso emozionantea izan zen. Guztiak Euskal

Herri independente baten alde geundela ikusteak esperantzaz bete ninduen. Beste ideologia batzuetako jendea beldurtzea lortu dugu, eta hori ez dago gaizki. Helburu orokorrak finkatu ziren, eta orain horiek norbere herrian nola gauzatu jakin behar da. Iritzi ezberdineko jendea elkartu ginen eta ikuspuntu ezberdinak dauzkagu helburu orokorren inguruan, baina iritzi aniztasuna beti da aberasgarria".

Oro har Elgoibarko hiru alderdietako ordezkariak pozik atera ziren biltzarretik, guztiek esan digute hau lehen pausoa izan dela eta orain aurrera egitea dela kontua.

70 lagun bildu ziren joan den ostiralean, hilaren 17an, presoen aldeko kontzentrazioan

rlipuzkoako Foru Aldundiak deituta, bakea bultzatzeko eta presoen Euskal Herriratzeko aldarrikatzeko kontzentrazioak izan ziren joan zen ostiralean, hilaren 17an. Elgoibarko Udaleko Gobernu Batzordeak ere Foru Aldundiaren deiari erantzunez bat egin zuen presoen aldeko ekimenarekin, eta kontzentrazioa deitu zuen ostiral eguerdirako. Plaza Handian 70 lagun inguru elkartu ziren euskal presoen "erabilera politikoa" salatzeko. Barne Ministerioak egin dako iragarpenari erantzunez, presoen nor-

beraren jaioterritik gertu egoteko esku-bidea dutela gogoratu zioten bertan bildualcoek Gobernuari. EAJ-EAk egindako deialdiarekin bat egin zuten EHk, Senideek eta Amnistia- ren Aldeko Batzordeak. Elgoibarko kontzentrazioan Udaleko zenbait zinegotziz gain, sektore askotako herritarrak egon zi-

ren. Elgoibarko alkateak, Guillermo Garatek, bestalde, Donostiako Gipuzkoa plazan egin zen kontzentrazioan hartu zuen parte.





,911b~-7

H

ilabete honetako argazki zaharra **Juanita Iriondok** utzi digu, eta berak esan digunez, 1972 urte inguruan Urkiolan ateratakoa da. Mendi buelta egin ondoren atsedean une batean atera zuten erretratua lau lagun hauek. Bertan ezkerretik hasita honako lau lagun hauek agertzen dira:

Jose Luis Eizagirre, Nerea Agorria, Nieves Azpiazu eta Ramon Lazkano.



Euskal Kultu

Iaz bezala, cauten ere Euskal Kultur Hilabetea antolatu dute mendaron irailerako. Aurreko urtean Udala ardurertu zen kultur hilabetezren antolaketaz, baina aurten sortu berri den In Leike kultur elkarteak hartu dio erreleboa, hda ere udcedren lagtmtza izan dute. Hilabete osoan astebukaerero ekintza ugari izcm da Mendaroko hatnbal brokoton. Orcandik Anje Duhalderen kontzertua falta da, bcdna orain arteko ekitaldiek oso erantzun onaizan dute. Aukera er oso zabala izcm da: ipuin kontalartak, txontxongiloak, kcmtautoreak, antzezleak...

13a, in . Horrela pentsatuz ekin zion Mendaroko gazte talde batek bideari. In *Leke* elkenearen baiton zenbait lantalde ctude, eta horietako bat da, hain zuzen ere, askcza tctildea Bi helburu nagust ditu takleak: batetik Mendaron euskararen erabilera eta ezaguiza indarlzea, eta bestetik, hcnitarren arteon eiskal kututarekiko eta ohturekiko interem suspertzea Helbutu hauek bete nahian, ircularako Euskal Kultur Hilabetea cntolatu dute, Udalaren laguntzaz.

Doro ipuin kontaktrick eman zion hasiera Euskal Kultur Fhlabetecai. Dorok, bere alabaren lagunizaz, zenbait ipuh kontalzeaz gain, euskcd musika tresnak erabih zituen scdocn, jatorria, soinua eta joteko erak azalduz. Hatunek ere partehartw nabarmena izcm zuten ikuskizu-

nean, eta *Ormola* tabema tdkl geratu zen bertara hurbildu zen jendearenizat

Irailaren 4an, larunbata, Asier Senano kcaltautore axatarro: izcm zen Mendarczabalgo Txrdstakatabeman. Bere gitarraren laguntzca poesialc errezitalu, abestiak kantatu eta ipuinak ere kontatu jtuen.

Mahaingurua eta txontxongiloak

Irctiltren 10ean, ostiralean, mahaingurua egin zen kultur etrean. 40 lagunetik gora elkartu ziren eta hizketaldict 2 ordutan luzatu zen. Mahaingurucun lau gonbidatu berezi izcm ziren: Euskara huisez lan egiten duten *Etztepe* enpresako zuzendana, Felix Etxeberrria, Debako *Gcaz* cakerkt taldeko zuzendaria, Lukas Dorronsoro, Elgoibarko Ins-

Kultur hilabeteko zein ekitalcli gustatu zaizu gehien?



Joinit Munoz

10 urte, ikaslea

Asko gustau tzadzkidan Dorok kontau thwan ipuinak. Bi ipuin kontau

zitxuan eta kantuctk abestu ere bai, oso ondo pascu naban, Gc:dnera, bukaeran bralapcala saio txiki bat egon zan, eta bertan parte hartu nalxm.



Iker Sainza

13 urte, ikaslea

Azrautza Delkatuak kafe antzerlda asko gustatu zitzaidon. Adin guzlietako jendeart zuzenduta zegoenez, jende asko joan zen ikustera. E'uslcal Hilabetea oso ondo joan dcz eta horrelako gruzak antolalzeak merezi duela uste dut, Beste cakerkoin bat jarriko balute ere gustura joarigo nintzcrteke.



mi racano

17 urte, ikaslea

Asko gustau zaidan' eburcñ hit galduak" iku.skizuna. Pako Aristik bere idcalan balzuk ekcari zituen eta MikeI Mcakceek musika jarti zien. Gainera, Aristk musika ixesna ezberdinak jotzeko duen abilezia eralcutsi zuen. Umone onean eta Icabzondeocal aritu ziren ekitaldi entretenigarna eginez.

r liilabeted

titutuko euskara irakaslea eta Etgoixako izarra Kultur Ekarteko zuzendaria den Ificncto Garmendia eta Jasone Osoro kazetcata. Moderalzaile lcometan Aranbca Egaña, Udaleko Euskara ardurduna atitu zen, eta jenclectk gonbidatuei hainlactr galdera eta proposomen luzatu zizlden.

Hurrengo igandean, irailaren 12an bconbcongiloak izan ziren Garagartzako monjen kapilan. *Taupada* taldeak "Mari Sorgin" obra eskaini zuen, Batez ere haunak gerturatu ziren, baina izan zen bertara joan zen guraso eta gazterik ere. *Taupada* taldekoen prestakuntza tekniko oso aipagania da. Izan ere, erabili zituzten argi jokoak, dekoratuak... iku,slcizun erakcagarria sortu zuten.

Antzerkia eta

Irailaren 17an, gaueko 22:00etan "Arrautza Delikatuctk" kate anterkia izan zen Arboleta aurrean. Oso antzezlon berezia egin zuten *Goenkalen* herin ezagunak egin diren Mikel Lctslcuratnek eta Teresa Andonegik. *Hika* antzerld taldearen eta *Iturn* kulturgingfa zerbituaren proiektu hau euskararen inguru kritika bat da eta ikuskizuna oso bereda izan zen,

Azkenik, joan zen larunbal gauean, irailaren 18an, Mikel Markez eta Pako Aristi izan ziren Garagarizako monjen kapilan, Kantcrutoreak eta idazleak "Tribuczren hitz galduak" berden azken lana aurkeztu zuten, Atzerapen piska batekin hasi bazen ere, bertaratutakoak gustura atera ziren ikuskuntetik. Anekdotarlic ere ez zen falta izcm. Eacitaldiaren atsedean une bctteon Pako Aristi bere andregaiari telefonoz deitzera joan zen, jendearen laguntza ere eskatu zuen bera agurtzeko, eta bat batno gehiago atera zen monjen kapilalik telefono deia licuskizunaren perre zelakcan



Orain, azken ekitalclia geratzen da. Bihar, lan-mbcrtan, irailak 25, Anje Duhalderen kontzertua izango da Garagatz,ako monjen kapilan gaueko 22:00etan Musika ederra entzuteko parada izango da, eta Iponaldeko kantariaren abestiek ilcuskizun bikalnez betetako aiskal Kultur Hilabeteari amcriera ezinhobea emango diete. Horra hor aukera pcnegabea doinu hauek gustuko dituztenentzat.

I• or Ezenarro

IN EUSICARA TALDEKO KEDEA

Nola sortu zen Mendaron Euskal Kultur Hilabetea antolatzeke idecr?

- In Leikeko euskara taldearen helburuetariko bat euskal lcukura bultdatzea da eta hori izcm zen Kultur Hilabetea sonzeko arrazoieterko bat. Gainera, iaz Udaleko euskara balzordeak antolatu zuen kultur hliabetea, eta aurtan biok elkarlanean eratu ditugu ekitaldiak.

Nondik lortu duzue linantzicrzioa?

- Batez ere Udaletik. Euskara Bcazordearen aurrekontuaren parte bat ekintza hauek ontolatzeko erabili dugu. Bestalde, Mendaroko hainbcrt denda, enpresa eta tabema diru iturri egoikiak izan dira. Diruaren truke egitcrrau karteletan beralen publikitate jctrri dugu eta diru horren zati bat karteletarako erabili dugu, bestea, beniz, ikuskizunak ontolcttzeko. Emanalcli batzuetan sarrera kobratu dugu eta horrek ere Kultur Hilabetea fincmziertzeko balioko du.



iolakoa izan da jendearen, erantzuna?

Mendaron urte guzlion ez da elcintza asko antolazten, eta jendea ez dago ohituta horrelako ilcuslcizuriak licustera joaten. Moduhonetctkoekitalcllgehiago antolatuz gero jendea mugitzea gustatuko litaguke. Actin guztietako jendea izan da ilcuskiarnetan

Zein bcdorazio egiten duzue Kultur Hilabeteaz?

- Balorazio positiboa, dudank gabe. Jendecrri kanpora joan gabe entretenitzeko aukera eman diogu Mendaron eta hori zen gure helburuetariko bat. Hliabetea kulturala antolcttzeko lan asko egin dugu eta cthaleginak merezi zuela ilcusi dugu, pozik gaude ilcuskiunek izcm duten harrerareldn. Mendarora etoni diren artistcck ere gustura joan direla uste dugu.

Datorren urtecm horrelakaik antolatzeke asrnorik ba al duzue?

- Ilharko Anje Duhalderen kontzertua falta da aurtengoa bukatzeko eta ondoren erabakiko dugu dcrtonen urtean zer egin.

1999ko zergen

kobraketa

Kontribuzioa ordaintzeko borondatezko epea irailaren 1 etik azaroaren 10era bitartekoa izango da. Helbideratutako ordainagirialc kontu korrontetik zuzenean kobratuko dituzte, helbideratu gabeak, berriz, zergadunek adierazitako helbidera bidaliko dira irailan. Ordainketa edozein banketxetan edo aurrezki kutxatan egin ahal izango da. Zergadunak urriaren 10erako ordainagiria etxean jaso ez badu edo dirua kontu korrontetik kobratu ezean, Eibarko Zerga Bulegora joan beharko du. Zergak borondatezko epean ordaintzen ez badira %20ko errekarua izango dute.

Lanpostu

berrietarako deialdia

Mendaroko langabetuei jakinarazi nahi zaie honako lanpostuak betetzeko langileak behar direla eta horretarako baldintza hauek bete behar ditu aurkeztu nahi duenak:

Ur kontagailu irakurlea: 18 urte beteta izatea, FPIko ikasketak edo baliokideak eginda edukitzea, euskara idatzia eta mintzatua jakitea eta BI gida baimena izatea.

Nekazal errolda egiteko inkestaztaileak: 18 urte baino gehiago izatea, eskola graduatua edo baliokidea edukitzea, lana egiteko garaian prestotasun osoa izatea, euskaraz jakitea, herriaren ezagutza eta auto propioa.

Eskaerak honako helbidera bidali behar dira: Ur Zerbitzuak. Hart. Ione. Kondeko Aldapa 5-3. esk. 20400 ToIosa. Lanpostuak betetzeko premia dagoenez, izen-ematea lehenbailehen egin beharko da.

•* **Gripearen aurkako txertaketa kanpaina**

Mendaroko anbulategian gripearen aurkako txertoa hartzeko egunak astearreak eta ostegunak izango dira. Kanpaina irailaren 15ean hasi zen eta azaroaren lehen amaituko da. Orgutegia eguerdiko 12:00etatik 13:30era bitartekoa izango da. Txanda aldez aurretik hartu behar da 943 74 61 43 telefonora deituta.

Udalak Gurbin S.L. enpresari saldu dizkio industrialde berriko lurrak

Abuztuaren 3an, hirigintza hitzarmena sinatu zuten Sondikako Gurbin S.L. enpresak eta Mendaroko Udalak. Hitzarmen honen bidez Igartu aldean egingo den industrialde berriko lurren erosketa adostu zuten. Industrialdeak guztira 50.000 m2ko azalera izango du eta hauetatik 31.500 m2 pabiloiak eraikitzeko erabiliko dira. Hitzarmenaren arabera, urbanizazioa 2 urte barru burutuko da, pabiloi industrialak, berriz, 2004 urterako eraikita


egon beharko dira. Udalak 25 milioiko irabaziak lortuko ditu konpentsazio proiektua uztearen truke eta dirua udal ondarrerako lurrak erosteko erabiliko da. Argazkian, Mendaroko alkatea eta Gurbin S.L enpresako ordezkaria agertzen dira akordioa sinatu zuten egunean.



Larobic eta mantenimendu gimnasia ikastaroa urriaren 4an hasiko da

Aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, aurtengorako ere Elgoibarko Ibai kirol elkarteak eta Mendaroko Udalak aerobie eta mantenimendu gimnasia-ko ikastaroa antolatu dute. Klase-

ak ikastolako gimnasioan izango dira, eta urriaren 4an, astelehenean hasiko dira. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero Ibai elkarteko 943 74 07 93 telefonora dei dezakezue.



Roberto Garcia Nieto Elgoibarren jaio zen eta azkeneko urteotan Deban bizi da. Bere zaletasuna margotzea da. Zaletasun hori eta Elgoibarko herriari eskaini nahian bere lan artistikoak, hilaren 17an hasi eta urriaren lera bitartean Kultur Exxean erakusgai izango ditu. 30 koadro inguru daude nahi duen jendeak ikusteko. Horretaz gain, Deban duen estudioan, beste hainbat koadroekin lanean dihardu 36 urteko elgoibartar honek. Erakusketak eta margoaren munduak erakarrira, Robertorekin hizketaldi bat izan dugu.

ROBERTO GARCÍA

"Eskolara joan baino lehen hasp nintzen margotzen"

—Nondik datorkizu margotzeko zaletasuna?

Eskolara joaten hasi baino lehen egin nituen lehen marrazkitxoak. Denborarekin, margotzeko zaletasuna sartu zait.

—Nola bururatu zitzaizun honelako erakusketa bat egitea?

Elgoibarren bizi izan naiz 27 urte bete arte, eta garaia bazela-eta, jaioterrira itzuli, nire lagunekin egon eta jendeak azken aldian zertan nabilen ikusteko egin dut batez ere.

—Zein estilo erabiltzen duzu normalean?

Ez daukat inolako estilo definiturik. Bururatzen zaidan edozein estilotan margotzen dut, besterik gabe. Estilo guztiak atsegin ditut: argazkia, erretratu, bodegoia, paisajea... denetarik.

—Erakusketa prestatzerakoan, koadroak hautatzeko

irizpiderik erabili al duzu?

Erakusketan dauden koadroetako batzuk Elgoibarki dedikatutakoak dira, gainontzeko koadroak, aldiz, azken bi urte hauetan egindakoak.

—Zein izan da jendearen erantzuna?

Batek baino gehiagok komentatu du nire lanak merkeak direla, baina oraindik ez da inor erosteko asmoz azaldu. Beno, bona ekartzeko koadroak biltzen nabilela bi koadro erosi zizkidaten.

—Beste margolanik egiten ari al zara une honetan?

Hiru pertsonarentzat enkarguak egiten ari naiz, Hiru erretratu, hain zuzen ere.

—Beste erakusketarik egitea bururatu al zaizu?

Behin erakusketa hau egin ondoren, Elgoibarren ez dut denboraldi batean besterik egingo. Inguruko herrietan ibiliko naiz. Deban garaje batean egiten ditut lanak.

Bertako atea beti egon ohi da zabalik, sartu eta nire lanak ikusi nahi dituenarentzat. Baita margolanak eta nola egiten ditudan jakin nahi duenarentzat. Tabernetan, eta horrelako lekuetan ere izaten dut zerbait erakusgai.

—Zein da zure margolane-tatik gustukoen duzuna?

Erakusketan ikus daitekeen bat. Zezenketako eszena bat da, zezena eta pikadorea agertzen direna. Erabilitako teknikagatik atsegin dut.

— Zeintzuk margolari atsegin dituzu gehien?

Batez ere Velazquez. Baita Antonio Lopez ere. Estilo berriak ditut gustuko.

- Margolaritzara eskriboki dedikatzea pentsatu al duzu?

Pentsatu bai, baina oso zaila da honetaz bakarrik bizitzea. Asko kostatzen da koadroak saltzea. Normalki jendeak ez ditu erosten.

—Nolakoa izaten da koadro bat egiteko prozesua?

Argazki bat daukadanean lehendabizi marrazkia egiten dut. Erretratu batekin, esate baterako, marrazterakoan antzekotasuna bilatzen saiatzen nahiz. Arkatzez, egiten dut marrazkia. Behin antzekotasuna bilatutakoan, pintatzeari ekin eta amaitu arte. Erabiltzen dudun prozesua errazena edo behintzat klasikoena dela esan daiteke.

Koadro berririk sartuko duzu erakusketak dirauen bitartean?

Ez, momentuz, ikusgai dauden koadroek urriaren lera arte iraungo dute. Bien bitartean saltzen direnak eramango dira noski, baina gainontzekoek hementxe segituko dute azkenera arte.

Arnaitz Gorriti

EESTEK ESANA

"Margotzerakoan oso perfektionista eta konstantea da. Aldi berean, oso apaia ere bada".

MARIA ROSA LEZERTUA, emaztea.





Osa unean adituak

GAIA:

Perrelxikoen intoxikazioak

Gaur egun asko dira toxikoak diren perretxikoak jan eta gaixotasunen bat izaten dutenak, batzuek hil ere egiten dira. Orain dela ez urte asko perretxiko pozointsuak jaten zituzten pertsonen %95 hil egiten zen, gaur egun ordea alderantzizkoa gertatzen da, %95 da perretxiko toxikoak jan eta hala ere bizirik irauten duena. Hori medikuntzako aurrerapenei esker lortu da, batez ere, sendagileek perretxikoen toxikotasunari buruz daukaten ezagutzarengatik.

Norbait pozointzen denean arriskutsua den ala susto soila den jakiteko hasierako sintomak kontutan hartzea da onena. Perretxikoak, sintomak agertu baino 6 ordu aurretik edo lehenago jan dituela baldin badakigu, arazoa larria da. Horrelakoetan ambulanzari garaiz deitu behar zaio eta hura iritsi bitartean gaixoaren gorputzak onartzen duen beste ur emango diogu edateko. Uretan disolbatutako sueroa ere egokia izaten da horrelakoetan, txiza eginenez gero toxinak botako dituelako. Suero-rik eskura ez badaukagu, urari gatz, azukrea eta bikarbonatoa bota diezaiokegu.

Perretxikoak jan dituenetik 6 ordu ez badira igaro, lehenengo gaixoa lasaitzen saiatuko gara eta ondoren sendagilearengana eramango dugu.

Hala ere horrelakorik gerta ez dadin, perretxikoak jan aurretik pozointsuak diren ala ez jakiteko aditu batengana jotzea da egokiena.

MASAJ ISTAK

Victoria Iraegi

Pl. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Ter: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

TRRET

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

[Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra]

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu **BARRE**Neko 943 74 41 12ra



ste honetako erretratu zaharra Karakate Elkarteko bazkideek artxiboan gordeta zeukaten eta utzi egin digute. Elkartek honek 25. urteurrena bete du aurten, eta urte hauetan guztietan hutsik egin gabe antolatu izan duten perretxiko lehiaketa


batean ateratako argazkia da. Noizkoa den zehazki akordatzeko ez badira ere, lehenengo urteetakoa dela aipatu digute.

Erretratuan agertzen direnak ezkerretik esku-mara, Jaime Arrese (t), Bernabe Mugica eta Ramon Agirre (t), azken biak Aranzadi Elkarteko ki-deak. Urte hartan saritu zituzten bi gazteen izenak ezin izan ditugu lortu.




ESKERTZA

1999ko irailaren 19ean, 47 urte zituela hil zen ARANTZA ZUMETA MANTEROLAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu tzana.



ESKERTZA

1999ko irailaren 22an, 86 urte zituela hil zen AMANTZI KONDE ISASI-ISASMENDIren sendiak, bihotzez ESKERTZEN clitu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



21 tEkla 1E11 aa SE Izeloits **gabiltza** Eigolarreir



Ramon Blanco

- **Adina:** 46 urte
- **Soka tenkatzean zenbat kilotako indarra egiten duzue?**
30 bat kilokoa, gutxi gorabehera.
- **Gogoko beste kirolik?**
Lehen judoan aritzen nintzen.

-Nola hasi zinen arku tiraketa egiten? Eskopetarekin ehizatzea ez dut gogoko, baina arkuarekin eta geziakin untxiak ehiza nitzakeela pentsatu nuen. Ehizan aritzeko modu berezia iruditu zitzaidan, atseginagoa. Lehenik, arku erostea pentsatu nuen. Dendara heldu nintzenean, ordea, mota askotako arkuak eta geziak zeudela ikusi nuen eta ez nekien zein aukeratu. Ezer erosi baino lehen probatzea erabaki nuen. Arku tiraketa ikastaro bat Elgoibarren ematekotan zeudela entzun, eta bi aldiz pentsatu gabe, izena eman nuen.

-Arku-tiro talde bat sortzeko-tan zabilzate, ezta? Bai. Aipatutako ikastaro horretan ibili ginen elgoibartarrok aurrera jarraitzea erabaki genuen. Guztira 12 bat lagun gara, eta kirol hau asko gustatu zaigunez, talde bat sortzea erabaki dugu. Horrela, txapelketetan talde moduan parte hartu ahal izango dugu.

-Kirol hau egiteko zer material behar da? Arkuak eta geziak erostearekin nahikoa da. Bi arku mota daude: bata poleaduna eta modernoagoa da. Beste arkuak, berriz, poleadunak baino zehaztasun eta indar gutxiago du, itkuraz ere tradizionalagoa da. Pertsona bakoitzak bere ezauganien eta neurrien arabera arku bat edo bestea beharko du. Ezer erosi aurre-

tik gure beharrak zein diren jakitea komeni da. Arkuak jaurtitzekoan ezkerak edo eskuinak garen jakitea, adibidez, garrantzitsua da.

-Garestia al da arkuak? Merkeenak 30.000 pta. eta garestienak 225.000 pta. inguru balio du.

-Edozein lekutan ibil gaitezke arkuarekin? Ez. Zailtasun handienak arku tiraketan jarduteko leku egokiak bilatzerakoan izaten dittgu. Momentuz, Ikastolan ari gara.

-Zer ezaugarri behar dira tira-tzaile ona izateko? Beste edozer baino gehiago, sentsibilitatea eta oreka. Detalle guztiak eduki behar dira kontuan, zentimetro edo milimetro bateko akatsa nahikoa da huts egiteko.

-Zer dauka berezia kirol honen? Oso erlajantea eta emozionantea da. Arku eta gezi baten laguntza bakarrarekin, ia ikusi ere egiten ez den puntutxo baten erdian asmatu duzula ikusteak poztasun handia ematen du. Haurtzarora itzultzea bezalakoa da, bakeroetan eta indioetan jolasten genuen garaira, alegia.

-Untxirik harrapatzeko adina ikasi al duzu? Ez, oraindik ez. Udan saiatu naiz Galizia aldean, baina gehiegi mugitzen dira. Piska bat gehiago ahalegindu beharko dut, agian datorren urtean.

• Estresa kontrolatzeko ikastaroa Hiraldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak estresa kontrolatzeko ikastaroa antolatu du Olaizaga Kiroldegian. Energia kanalak (meridianoak) baretzeko edo bizkortzeko, txakrak orekatzen edo arnasketa ariketen bidez estresa kontrolatzeko hainbat ariketa irakatsiko ditu Jose Antonio Zuazubizkar irakasleak. Klaseak urriaren 2an hasi eta otsail bukaeran amaituko dira. Saioak larunbatero, goizeko 9:00etatik 12:00etara izango dira. Bazkideek hilero 2.500 pta. ordaindu beharko dituzte eta 3.000 pta. gainontzekoek. Izena emateko epea irailaren 28an bukatuko da (943 74 44 15).

• Tenis ikastaroak

Tenis ikastaroak antolatu ditu Kirol Patronatuak. Klaseak, IMHko Udal Tenis Pistan izango dira. Ikastaroak 8 urtetik gorako hurrei zuzenduta daude, baina astelehenetan helduentzako ikastaroa antolatzeko aukera ere egon daiteke. Urriaren 5ean hasiko dira ikastaroak eta ordubeteko 10 saio izango dira. Ikastaroaren arduraduna Ander Oñederra izango da. Hurrei dagokienean, bazkideek 4.500 pta. ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 5.000 pta. Helduek, berriz, 3.500 pta. bazkidea izanik eta 500 pta. gehiago gainontzekoek. Izena emateko epea urriaren lehen bukatzen da, Olaizaga kiroldegian. Partehartzaile kopurua mugatua dela aditzera eman nahi dute Udal Kirol Patronatuko arduradunek.

• Haurrentzako eta helduentzako eskalada ikastaroak

Morkaiko Mendizale Elkartek, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz, eskalada ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroak hurrei eta helduei zuzenduta daude eta urriaren 4an hasiko dira Olaizaga Kiroldegian. Josu Merino eskalatazailerik elgoibartarra izango da ikastaro hauen arduraduna. Izena emateko epea irailaren 28an bukatuko da. Interesatuok Kiroldegira zuzendu edo 943 74 44 15 zenbakira dei dezakezue.

cn

O
cc

Futbola, 1999/2000 denboraldia

Kadeteak eta rinffantilak

Kadeteak



A tzean ezkerretik hasita: **Antonio Galeano** entrenatzailea, **Xabat Molina**, **Asier Aitrio**, **Gorka Panizo**, **Carlos Feijoo**, **Iñigo Irazabalbeitia**, **Asier Elustondo**, **Antxon Ezenarro** eta **Haritz Calvo**. Makurtuta: **Aitor Gabilondo**, **David Villarchao**, **Iban Martinez**, **Andoni Etxabe**, **David Morais**, **Josu Duran** eta **Mikel Ruiz**.

Argazkian **Iñigo Otero** eta **Mikel Ruiz** falta dira.

Kadeteek partidu bakarra jokatu dute, arrasatearren kontra. 0 eta 2 irabazi zuten, eta Aretxabaletako taldearen aurka etxean jokatu duten bigarren partiduan ere, berdin egitea espero dute. Antonio Galeano entrenatzaite moduan aritzen den estraineko denboraldia da. Aipatu digunez, "aha! badugu, maitaz igotzen saiatuko gara, iaz jaitsi egin ziren-eta.. Itusiorik ez zaigu falta. Hala ere, plantilan 18 jokalarik bakarrik daude. 22 jokalariz izatea da ohizkoena, eta dudarik gabe, igarriko dugu. Lesionatu gehiegi izaten ez baditugu gure helburuak bete ditzakegu, baina oraindik goizegi da ezer esateko".

Infantllak



A tzean, ezkerretik hasita: **Andres Muñoz** entrenatzailea, **Iker Arrillaga**, **Andoni Arrua-M. barrena**, **Unai Mujika**, **Mikel Muñoz**, **Jon Gareia**, **Ander Almenara** eta **Mikel Gorriti**. Makurtuta: **Unai Ortega**, **Julen Merino**, **Iñigo De Los Ojos**, **Aitor Mugerza**, **Iban Murua**, **Mikel De Pablo**, **Egoitz Rodriguez**, **Aitor Nova** eta **Jokin Zubiaurre**. Argazkian **Iban Konde**, **Erik Vigara** eta **Unai Gasterain** falta dira.

Infantilek igandean, hilaren 26an, hasiko dute denboraldia. Lehen partidua etxetik kanpo jokatu dute, Santo Tomas Lizeoko donostian'en aurka. Andres Muñoz da entrenatzailea eta aurtengoa kategorian honetako taldea entrenatzen arituko den 4. urtea da. "Infantiletan ohorezko kategorian gaude, goreneko mailan alegia. Oso zaila izango da maila mantentzea, baina saiatu gabe ez dago ezer lortzerik". Iazko taldetik 7 jokalarik bakarrik jarraitzen dute taldean, eta gainontzekoak berriak dira. Andresek aipatu digunez, "12 eta 13 urte baino ez dituzte eta asko ikas dezakete urtebetean, lan horretan irakasleak pazientzia handia behar badu ere".

1411AII 471/A

Futbola

Haundi 2- Lagun Onak 0
Zarautz **5**- Elgoibar 0 (Jub. E. L)
Arrasate 0 - Elgoibar 2 (Kad.)
Bergara 1- Elgoibar 2 (Neskak)

Pilota

Gipuzkoako Elkarteen Arteka Txapelketa
Arrut-Esnal 22 (Andazpe)
Arrillaga-Apraiz **4** (Lag.)

Perea-Leon 10 (Lag.)
Altuna-Mintegi 22 (Amezqueta)

Ansola-Alzibar 15 (Lag.)
Etxaniz-Larrañaga 22 (Azkoitiko P.E.)

Elizalde-Leonel 22 (Hernani)
Larrataga-Ulazia 17 (Lag.)

Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNUIKO jokalaririk erregularrena 99/00	JOKALARIA	PUNTUAK
1- Unai Bravo	4
2- Txasio	3
3- Castro	3
4- Aranberri	3
5- Edu fernandez , , ..	2
6- Unai Zulaika		2

A 4N11..A

Pilota, I kastolan

Ostirala, 24
Gipuzkoako hapelkela
22:00 Lagunak P.E. - Murumendi (Kad.)
23:00 Lagunak P.E. - Gtrizia (Jub.)

Eskubaloia, Kirdelegian


Larunbata, 25
1100 leemomeca.Elg - Bera Bera (Jub. nes.)
17:30IMS ag. - Bera Bera (Sen. nes)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 25
16:00 Pedrusko - Usurbil (1. erreg.)
17:45 Elgoibar - Arrasate (Neskak)
Igandea, 26
12:00 Elgoibar - Aretxabaleta (2. Kad.)
16:30 Elgoibar - Tolosa (Jub.)



Olaso, 23 • 943 74 20 37



ipuin
ji.a kat
INAKI
ALDEKOA



D.);JARki

Antologia

Inaki Aldekoa irakasleak duela urte batzuk "Euskal ipuin antologia bat" liburu aurkeztu zigon. Bere gustu eta iritziaren arabera antolatuta, euskal literaturan azken garaian sorturiko lanik gogokoena aukeratu eta bildu zituen idazle oñatiarrak.

Liburu honetan, euskal idazleen artean izen ezaguerenak direnak topatu ditza ke irakurleak. Lehendabizi, Jon Mirande zuberotarraren "Gauaz parke batean" ipuin bikaina irakur dezakegu, edozein antologiatan sartzea merezi duena. Eta ondoren datoz Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Inazio Mujika eta Juan Garzia Garmendiaren kontakizunak. Aldekoaren bildurna hau ona da eta merezi du irakurtzeak. Baina honetaz gain, agertzen diren zenbait idazleren liburuak osorik irakurtzeko nahia ere pizten du. Izan ere, era honetako liburuekin gerta daiteke, egile bakoitzaren narrazioen ale bat edo bi soilik dakarrenez, horiek irakurri ondoren, gutxitxo iruditu eta gehiagoren gogoarekin gelditzea.

Jon Eugi

Tzelo owelgilitzioak koripalnlalk **La Dama y el Cardenal** **ilana eskainike** **urriaren lean**

Saioa gzteleraz izango da gaueko 22:30etan

Txalo Produksioak S.L. konpainiak *Jacques Rampal* idazle frantziarraren "La Dama y el Cardenal" *textua taularatuko du, urriaren lean, Herriko Antzokian. Ramon Barea aktore eta zuzendari ezagunaren aginduetara Ane Gabarain, Kandido Uranga eta Xabier Agirre antzezleak arituko dira.*



Kandido Uranga eta Ane Gabarain dira "Dama eta Kardinala" laneko protagonistak.

'La Dama y el Cardenal

20 urtean elkar ikusi gabe egon ondoren, berriz bat egiten duten maitemindutako bikote baten istorioa da. Bizitza ikusteko eta sentimenduak azaltzeko ezberdintasunak banatu zituen Zelimea (dama) eta Altzezte (kardinala). Zelimea ezkondu egin da eta Altzezte kardinal boteretsua da, baina 20 urte beranduago maitasunaren sua ez da oraindik itzali. Topaketak, etxeko haserrealdiak, gizon-emakumei buruzko eztabaida filosofiko dibertigarriak, eta eszena erotikoak ikusteko aukera eskainiko dute. Ramon Barea zuzendariaren hitzetan, "La Dama y el Cardenal" komedia sentimental fina da. Interpretatu behar duten aktoereentzat apustu gogorra; helburua ikuslearen adimenetik sortutako barrea lortzea da". Zeregin zail horretan arituko diren aktore euskaldunak oso ezagunak dira. Ane Gabarain, 'Bi eta Bat' eta 'Jaun eta Jabe' telesailetan edo 'Pecata Minuta' eta 'Maite' pelikuletan lan egindakoa da, besteak beste. Kandido Urangak, berriz, 'Behiak' eta 'Salto al Vacio' peli-

kuletan edo 'Benta Berri', 'Hertzainak' eta beste hainbat telesailetan parte hartu du. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da eta sarre-rak aurrez salduko dituzte Kultur Etxean goizeko 11:00etatik 13:00etara. Sarrera bakoitzak 600 pta. balio ditu eta antzerkia gazteleraz izango da.

Jasone Osorok idazle berrienUake iiteralizt sorkuntzarako beka bat irabazi du

Jasone Osoro idazle Jelgoibartarrak Beasaingo Udalak, CAF-ek eta Elkarlanean argitaletxeak antolatu duten Igartza Saria irabazi du. Sari hau, idazle berrientzako literatur sorkuntzarako beka bat da. Batetik, 350.000 pezetako saria irabazi du beka honi esker; eta bestetik, Elkarlanean argitaletxeak argitaratuko lukeen liburu bat idazteko aukera, egile eskubide eta guzti. Liburu idazteko urtebeteko epea izango du. Igartza Sarietara lanak aurkeztu zituztenen artean Xabier Etxebe-



ria zarauztarrak irabazli zuen Jasone Osorok aurkeztu zuenak, berriz, akzesita. Jasonek azaldu digunez, 'Korapiioak' izeneko ipuin-liburu bat idazteko proiektua aurkeztu naban. Liburuko ipuinak lotuta daoz eta danen artian istorio bakar bat osatzen dabe. Gainera, ipuin bakoitzan basieran, sarrera moduan, nik idatzitako poema bat sartu dot". Sariak ilusio handia egin dioia ere aipatu digu. Sari banaketa ekitaldia Miramongo (Donostia) Arbelaitz jatetxean, lunch' baten bueltan izango da, gaur, hilak 24.

Jor&apalo

I KASLEA - 15 URTE



- 1 - Merezi al du bizitza? Eta Mendaron bizitza? - Ezbehar batzuk egon arren, bizitzak merezi duela uste dut. Mendaro herri txikixa eta politxa da, bertan lasai bizi leike.
- 2 - Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin? - Bihar ezker bai.
- 3 - Hil eta gero? - Igual egongo da zeozer, baina ez dot uste esaten daben bestekua danik. Espiritua beste toki batera jungo da, baina berpiztu... ez dakitx.
- 4 - Lehenengo ni eta gero besteak. - Segun eta ze kasutan. Batzutan norbera egon bihar da aurretik baina ez beti.
- 5 Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Lagunen arteko arazua bada, gertuko lagun bati. Etxian aitxari edo bestela persona nausixaoren bati.
- 6 Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Anbiziva gidatzia. Bizikletan eta motorrian ibiltzia beti gustau izan jata. Biziva, berriz, makinitak destripatzia eta arreglatzia.
- 7 Sinesten al duzu politikan? Eman al zenuen botorik? - Nereztako rollo zahar bat da politikia. Botua emateko edaderik ez clakat, baina ailegatzan jatanian ere ez dakit botauko doten edo ez.
- 8 Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera? - Iaz, Elgoibarren presuen aldeko manifestazio baten izan nintzan.
- 9 - Euskalduna naiz eta harro nago? Bai, dudarik gabe.
- 10 Zerk galeratzen dizu loa? - Normalian lasai itxen det lo, baina arazo latzen bat euki ezker, bueltaka ibiltzen naiz.
- 11 - Joaten al zara Gaztetxera? - Bai, noizian behin juten naiz.
- 12 Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? Nik baietz uste det. Bost anai-arreben artian ni naiz mutil bakarra eta mutilak neskekiko desberdinak geranez, preokupau itxen dia.
- 13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Gurasuekin ez naiz asko kejatzen, baina beraiek besgarai batian bizi izan zirenez, ez dute hain argi ikusten gauzak

- aldatzen ari direla.
- 14 - Laguntzen al duzu etxeko-lanetan? - Ohia beti itxen det eta nere kuartua ere jasotzen det.
- 15 - Ondo pasa al daiteke alkoholik gabe? - Bai, batzutan alkohol asko edan ezker, txarrao izaten da gainera.
- 16 - Irakurri duzun azken liburua? - Juan Martin Elexpuren "Kuba triste dago"
- 17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? Maitasuna sexurik gabe logikua da, pensatzen det.
- 18 - Birjinitatea traba ala bertutea? - Nire ustez ez da traba bat.
- 19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Bera bezelakua ez naizela esango nioke, baina bere sentimendualc ez mintzen saiatuko nintzateke.
- 20 - Sinesten al duzu betiko maitasunean? - Bai. Nik gure arbasuek bezela in bihar dala pensatzen det, zaharrak izan arte beti aurrera. Arazuak euki arren afrontatzen jakin bihar da.



4...>>. irpr



Enkarguak
943 74 28 75
telefonoan

- * PASTELAK
- * TARTAK
- * BOILERIA INTEGRAIA
- * GOSARIAK
- * KONBITEAK

date]za deta.4
0' ~~~~~
du~eot 94,tet,

ergunero goizeko 8:30etatik
iluntzeko 20:30etara

[I riOndO TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15



)NTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. 1r 943 74 36 52 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

20 igandea

7:30 ZALAMA-BALGERRI MENDI TRABESIA

Irteera: Plaza Handian
Antolatzailea:
Morkaiko M.E.

9:00 ALDERDI EGUNERA JOATEKO AUTOBUSA

Irteera:
Sigmako errotondan
Antolatzailea:
Uriburu batzarra

10:00 GUGGENHEIM MUSEORA IRTEERA

Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: Haizea E.T.

10:00 DEBARROko HAUREN PERRETXIKO LEHIAKETA

Plaza Handian
Antolatzailea: Karakate
Mikologi Elkarte

19:30-22:15 ZINEA "La Momia"

ostirala

22:30 ANTZERKIA

Antzezlana:
Dama eta kardinala
Antzeztaldea Txalo
produkzioak, S.L
Herriko Antzokian
(Gaztelaniaz)

24 ostirala

22:15 ZINEA "La Momia"

larunata

9:00 EHIZA TXAPELKETA

Urnobitzan
Antolatzailea:
La Union Elkarte

12:00 ZAZPIKIREN BILERA

Ganbaran

19:30-22:30 ZINEA "La Momia"

27 astelehena


20:30 DENDARIEN BATZARRA

Zubi-ondo elkarte
Gaia: Larunbat armsaldeetan
dendak irekitzea

22:15 ZINEA "La Momia"

rA	117.1
FAR MAZIAK	
Egunez	Gauetz
25 Etxeberria* Zabaleta (Errosario kalean)	
26 Etxeberria* Zabaleta (Errosario Kalean)	
27 Yudego Yudego	
28 Zabaleta Zabaleta	
29 Etxeberria Etxeberria (Errosario Kalean)	
30 Yudego Yudego	
1 Bidasolo Bidasolo *(eguerdiko 2ak arte)	
ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38	
ANDUAGA: Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42	
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84	
OKINDEGIA	
26 igandea Zabaleta	

NE A



Zuzendaria: Stephen Sommers.
Antzezleak: Brendan Fraser,
Rachel Weisz, John Hannah.

"La Momia"

Rick O' Connell abentureroa eta legionaria El Cairoko espetxe batean preso dago. Rick urkatzekotan dabilta baina bera da Hamunaptra hiria non dagoen dakien bakarra, eta horrek bizia salbatuko dio. Hiri hortan, Imhotep izeneko gazte batek heriotza baino zigor gogorragoa jaso zuen faraoien garaian. Evelyn, egiptologo Britainiar baten laguntzarekin Imhotepen indar ikaragarriaren bila abiatuko dira arriskuz eta ezusteko betetako abentura batean.

SAN MIGE_,EKO P497ff

OSTIRALA, 24

20:00 Kanpai jotze eta txafliu jaurtiketa jaien hasiera iragarritz.

22:30 "Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketa". Deba Behea-Elgoibar taldea, Azpeiti-Urrakiren aurka.

Ondoren, Erromeria *Egan* taldearekin.

LARUNBATA, 25

22:30 Dantza Jaialdia, Haritz Taldearekin.

Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin.

01:00 Bolo Txapelketa.

Sariak:

- 1- Berrizko nekazariak eman dako Sthil motozerra.
- 2- 12.000 pta.
- 3- 8.000 pta.
- 4- 4.000 pta.
- 5- 2.000 pta.
- 6- Sorpresa

Auzoko lehenarentzako garaikurra.

IGANDEA, 26

11:00 Meza.

Ondoren, Erromeria Baltzola anaiekin.

12:00 III. Artzai Txakur Lehiaketa.

Partaideak:

Fermin Ainzua Tassekin
(Carraseal)

Peio Pagadizabal Alairekin
(Aia)

M. Angel Elordi Txinorekin
(Barinaga Markina)

Kintin Alustiza Xunzirekin
(Areso)

J. Ramon Orbegozo Txatorekin
(Aranzazu)

Jon Osoro Xolirekin
(San Lorentzo)

Jose A. Arrillaga Txikirekin
(San Migel)

Pello Segurola Argirekin
(Matxinbenta)

17:00 Idi demak Soarte, Lopategi eta Altzubarrenekin.

22:00 Erromeria Baltzola anaiekin.

ASTEAZKENA, 29

San Migel Eguna

11:30 Meza Nagusia.

Ondoren, Ziarda eta Mañukorta bertsolariak.

13:00 Auzoko bikoteen arteko XVI. Pilota Txapelketako azken partidua.

22:00 Erromeria Joselu anaiekin

24:00 Txekorraren zozketa.

Oharra*: aparparekua egongo da.

• Salsa eta biodantza ikastaroak

Salsa ikastaroa izango da Gaztetxean datorren uniaren 4an eta 9an hasita. 3 hilabetekoa izango da. Astelehenetan gaueko 21:00etatik 23:00etara edo larunbatetan goizeko 9:30etik 11:30era. Irakaslea Victor Jesus dantzari kubarra izango da. Ikastaroan parte hartzeko 656 73 56 25 edo 943 72 65 77 telefonora deitu. Bestalde, urriaren 9an eta 10ean biodantza ikasteko aukera izango da *Surya* belardendak antolatutako ikastaroan. Lamnbatean arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara eta igandean goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara. Biodantza ikastaroari buruzko infonazioa nahi duenak deitu 943 74 25 34 telefonora

• Ehiza Xeheko Txapelketa Urnobilzan

La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak urtero antolatzen duen Ehiza Xeheko Txapelketa, bihar, hilak 25 izango da Urnobilzan. Goizeko 9:00etan hasiko da txapelketa eta goizeko 7:30etik 8:00ak arte izen-emateak egin ahal izango dira egunean bertan. Besteia, elkartera zuzendu beharko da gaueko 21:30etik 22:30ak bitartean. Izena ematean 3.000 pta. ordaindu beharko dituzte bazkideek eta 4.500 pta. gainontzekoek. Ehiztari bakoitzak Federazioko baimena eta epailea eraman beharko ditu.

• Alderdi Egunerako autohusak

Elgoibarko EAJPNVko Uri Buru Batzarrak aditzera eman nahi du, domekan, hilaren 26an, Gazteizko sailburuako zelaian izango den Alderdi Egunerako autobusak antolatu dituela. Irteera goizeko 9:00etan izango da Sigmako zubiko errotondan. Izena eman nahi dutenek honako zenbakira deizakete: 943 74 27 44.

1 OIERK1 IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua.
943 20 35 15 • 8 ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**
San Pedro auzoa, 4
Tr 943 74 30 40 ELGOIBAR

Salerosketak



Lana

sESKAINZM

- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta 2 ume zaintzeko. in• **943 74 32 94**
- Emakumea edo neska behar da umeak zaintzeko arratsaldez. lr• **943 74 44 67**
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta 4 urteko ume bat zaintzeko. s **943 74 43 47**
- Neska bat behar da asteburuetan ileapaindegi batean laguntzaile lanetarako. w **943 74 00 69**
- Tabemako sukaldarako pertsona behar da. Lanerako gogoarekin. m• **649 96 38 92**
- Familia alemanak pertsona bat hartuko luke iratletik aurrera aupair bezala aritzeko. w **943 74 19 65** (Ainhua)
- Neska behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. s. **943 74 12 24/ 943 74 16 60**
- Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostiralean. te **943 74 35 86**
- Elgoibarren lan egiteko txarkuteroa behar da. ir **943 74 28 48** (22:00etatik aurrera)

sESKAERA*

- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. s **943 74 29 73** (goizez deitu, Andone)
- Erizain laguntzailea eskaintzen da jendea norbere etxean zaintzeko. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. s **943 74 46 69**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. u. **943 74 27 41**
- Arratsalde lan egiteko prest nago pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. a **629 40 21 70** (Ana)
- Erizain laguntzaile diplomatu eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. te **609 77 01 33** (Asis)
- Klinika laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Ir **943 74 04 S6**
- 32 urteko neska eskaintzen da umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. **943 75 51 93**
- Sukaldaria eskaintzen da sukaldarako. umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. u. **943 74 38 85**. Gloria (goizetan deitu)

Garajeak

- Marradun garajea alokatzeko daukat San Roke 5-7an. tr **943 74 33 39**
- Garajea salgai Leku Ederren. 3. solairuan. a• **689 93 79 90**

Partikularrak

- Matematika, Fisika eta Kimikako partikularrak emango dizkigun pertsona behar dugu. 2r **943 74 13 63**
- Marrazketa teknikoko klaseak ematen ditut. is **943 74 43 98** (Gattez deitu. Iftaki)

Etxebizitzak



- Pisu amueblatua alokatzen da Erretxindin. Ts **943 74 33 1:16**
- Benidonnen apartamendua alokatzen da. **53 943 74 06 28/76 63 21**
- Pisua salgai Santa Ana kalean. ts **689 93 79 90**
- Pisua alokatzen da Dehan. Irailaren erditik ekainera bitartean. Altzariek. a **943 12 15 41 943 19 10 28** (Eba)
- Pisua alokatzen da Urasandi auzoan. Berria eta altzariek. Bi logela eta egongela. a **943 74 42 26** (Iluntzean deitu).
- Buhardila edo pisua alokatuko nuke pertsona bakarrentzat. u• **943 74 05 99** (8:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara)
- Pisua salgai edo alokatzeko Torreviejan (Alieante). tr **943 74 24 26** (Domingo Garcia)

Agurrak

- Zorionak Mirentxuri, hilaren 29an 12 urte beteko dituelako. Ikastolako D.B.H. leko guztien partez. Ondo pasa dezazula.
- Zorionak Nieves Martinezi, hilaren 22an urteak bete zituelako. Mariaren partez.
- Zorionak tia Nievesi, tia txaxiena zarelako. Irurenen eta Alazneren partez. Espero dugu ondo pasatzea zure urtehetetzean.
- Zorionak Jasone Zapicori, irailaren 19an urteak bete zituelako. Familiaren partez.
- Zorionak Nagore Esenderori irailaren 1 gan urtean bete zituelako. Familiaren eta bereziki Alazneren partez.
- Zorionak Iza-ro Urtuhiari, hilaren 22an 7 urte bete zituelako. Etxeko denek partez eta bereziki Maiteren partez,
- Zorionak Loreari. bihar 8 urte beteko dituelako. Familiaren partez.
- Zorionak repostera. Zuk egindako pastel goxoren batekin ospatuko dugulakoan. Muxu handi bat.

• ZU...gazte sentimental... ZUK...hamazazpi urte...ZORIONAK. A-D-M.




• Zorionak Jalone Maguregiti hilaren 28an 7 urte beteko dituelako. Gurasun eta ahizparen partez. Muxu haundi bat amamaren partez ere.

• Zorionak Gorka Azpilikuetai, laster dezun ezkontzarengatik. Baita ere esan Martari, utz diezaioela Via Digitalera abonatzeko. bestela badakila zer gerta dakiokeen. Kuadrila.




• Zorionak Kattalini, hilaren 23an urtebete egin zuelako. Familiaren partez.



• Zorionak Beilati, hilaren 20an 2 urte bete zituelako. Amamaren partez.



• Zorionak Aitorri, gaur, hilak 24, 9 urte bete dituelako. Familiaren eta bereziki bere anaiaren partez.



• Zorionak Yeray Gonderi, igandean 2 urte beteko dituelako. Aitxixamamen, gurasoen eta Tamaren partez.



1 Zorionak Itsaso Garitagoitiari, hilaren 19an 12 urte bete zituelako. Arnaxoren, anai-arreben eta amama Mariaren partez. Segi animoarekin Insitutuntan.



GAZTELANIAZ!



Zuzendari artistikoa Jose ola Musika Pasca ne

Txalo produkzioak,

JACQUES RAMPAlen

LA DAMA Y EL CARDENAL

komedia aurkezten du

Ane Gabarain

eta

Kandido Uranga

Zuzendaria

Ramon Barea

**urriak 1, ostirala.
gaueko 22:30ean
Herriko Antzokian**

uthizkenea
I-) 0



**Permeteko Lela Sendi-
(Albania)**

**urriak 9, larunbata
gaueko 22:30ean
Foruen Enparantzan**



Kuituto



Aldundia



Haritz

Euskal Dantzari Taldea



Udalaren Musika
eta Dantza Fundazioa